



**HAURREN HIRIEN SAREA**  
**HAURREKIN.**  
**Ekintza-proposamena.**



Haurren Hirien Sarea  
Red Vasca Ciudades de los niños y las niñas



## Ikasteko aukera!

Beti ari gara ikasten: etxean gosaltzeko garaian, erosketak egitera joaten garenean, beste familiekin parkean biltzen garenean edo lagun berriak bilatzen ditugunean... baita ikastetxean ere. Erremediorik gabe ikasten dugu, irakasten digutenaz, harremanez eta bizi garen inguruneaz harago. Hori dela eta, HHSn guztien bizitza- eta hazte-baldintzak hobetu nahi ditugu, konfiantzazko kultura, berezitasuna, askatasuna eta erantzunkidetasuna sustatuz.

## Ez dakigu bihar gauzak nolakoak izango diren, baina Covid-19aren aurretik ere ez genekien.

Aldi honetan Covidak guztia aldatu du, eta aldi berean, ez du ezer aldatu. Eraiki ditugun agertokiek gure harreman- eta gobernantza-estiloak bistaratu dituzte, baita kultura adultokratikoa eta patriarkalaren kalteak ere.

Batzuk atera gara, batzuk gure intimitatea zaindu dezakegu, erabakiak hartu... Batzuk izendatu egiten gaituzte, informazioa ematen digute, eta galderak egiten dizkigute...

Beste batzuek, aldiz, "zain geratu" beste irtenbiderik ez dute.

Noiz arte? Zenbateko kaltea onar dezakegu?

## HAURREN HIRIEN SAREKO UDALEK ELKARREKIN LAN EGITEN DUTE TRANTSIZIOAREKIN ELKARLANEAN IKASTEKO:

. Segurtasuna-kontrola politiketarik, konfiantza-autonomiara.

. eremu publiko-pribatutik eremu komun-bizilekura.

. Harreman homogeneizatzaile-etatik eta gehiegizkoetatik intermendekotasunekora eta errespetura.

## ETA HAURREKIN EGITEN DUGU.

Eta Covid-19a gure inguruan izan dugun egun hauetan, guztiok zaintzea hain garrantzitsua den garaian, eta haurrak eta nerabeak presente dauden, gaituak diren eta eskubidea duten pertsona gisa hartzeko dugun ohitura eskasa hain bistan geratu den honetan. **Egunotan, ikasteko aprobetxatu behar da..**

**Haurren Hirien sarea (HHS)** tokiko politika eta haurren lanetik abiatuta komunitateen hazkunde-baldintzak eraldatu nahi dituen **udalen sarea** da. Gure ustez, "haurra" parametrotik abiatuta osatzen den hiria/herria/kalea ingurune anitza eta inklusiboa, iraunkorra eta ahaltsua da, guztiekin eta guztiena, bakoitza bere neurrira, baina inor atzean utzi gabe. Laburbilduz, izaten eta elkarrekin egiten ikastearen aldeko apustua egiten dugu, betiere, haurrekin egindako lanak eskaintzen digun ikaskuntzaren ibilbidetik abiatuta.



**Covid garaiak guztia aldatu du, baina aldi berean ez du ezer aldatu.** Gure inguruetakoko ohiko harreman-estiloek (etxea, eskola, lana... tokiko politika) eta gizarte gisa haurra izatea zer den dugun ideiak -zer egin dezakeen, zer behar duen, zer nahi duen...- zehaztu dituzte azken hilabete hauetako erabakiak eta gizarte-erreakzioak, eta bidegabekeria eta osasun-arriskuan oinarritutako premiazko egoera bistaratu dute. Hilabete hauetan helduek argi ikusi dute adinkerian oinarritutako gure kulturaren zentzurik eza, eta ohiturak eta beldurra presente izan arren, ikasteko prest daude. Hori dela eta, beharra orain-oraingoa ez den arren, Covidak elkar topatzeko eta aliatuak batzeko aukera ekarri digu.

Ikusiko dugu dokumentu honen bidez haurrengatik edozer gauza egiteko prest egoteaz gain, HAURREKIN ere egin dezagun elkarlanean aritu gaitzkeen.

**Haurrekin. Ekintza-proposamena.** Dokumentuan, partekatutako gogoeta-laburpenaz gain, komunitate/tokiko mailan aktiba daitezkeen ideia/ekintza zerrenda bateratu dugu.

HHS sareko kideak diren udalek urteak daramatzate beren proiektuak garatzen, sarean proposatzen diren oinarritzko lan-lerroetatik abiatuta: partaidetza, autonomia eta jolasa. Batzuk arlo guztiak jorratuz, beste batzuk lerro batean oinarrituta, azkenak erronka osasunarekin edo gobernantzarekin lotutako ibilbide luzeko proiektuetan txertatuz... bakoitza bere bereizgarriarekin eta elkartuta.

Eta horrela egin dugu dokumentu hau. Pertsonak -komunitateak bezala- kompetenteak eta bereziak izateaz gain, elkarrekin hazten garela seguru egonik.



Bizipenetatik, gogoetetatik eta Covid aldi honetako kezketatik abiatuta, lau ildo nagusitan lan egiteko beharra ikusi dugu. Ostera ere ez nahasteko, agertoki inklusiboak, iraunkorrak eta aurre egin diogunaren moduko erronkei osasunarekin eta zuzentasunarekin erantzuteko gai direnak eraikitzeko. Eta errepikatzen baldin badugu ere:

### **Informazioa ø Parte-hartzea eta Entzutea ø Eremu Komuna ø Helduak**

Hurrengo orrialdeetan, sareko azken lan-saioetan egindako gogoeten testu-laburpena eta udal mailan garatzeko ideia-zerrenda edo ekintza posibleak txertatu ditugu.

Idea-zerrendan haurrekin lan egiteko proposamen zehatzak txertatu ditugu, betiere, haien ekarpenak "helduen proposamen"ari gehitzeko.

Aktibatzen diren ekintzak edo proiektuak, datozen hilabeteetan txertatzen diren ekarpenekin eta aldaketekin bat etorriz, [www.haurrenhiria.eus](http://www.haurrenhiria.eus) webgunean partekatuko ditugu.

## **Konfinatu edo konfiatu?**

### **Haurrak eta nerabeak COVID 19aren garaietan**

Haurren Hiria Euskadiko udalerrien sarea da, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak sustatuta. Gure komunitateak ikaskuntza-ingurune osasungarriak, partaidetuak eta inklusiboak bihurtzea da helburua, betiere, berrikuntzaren eta komunitate-garapenaren ikuspegitik. Eta hori guztia hurrekin egindako lanetik abiatuta.

Haurren Hirien Sarea Francesco Tonucciren Haurren Hiriaren proiektuari lotuta dagoen ekimena da. Hiria "haurra" parametrotik abiatuta eraldatzeko proiektu politikoa. Sarea 2016tik dago martxan eta 18 udal ari dira partaidetzarekin, mugikortasunarekin, espazio komunarekin eta udal mailan haurren eta nerabeen autonomiarekin lotutako proiektuetan lanean. Proiektu honek alternatibak bilatu nahi ditu udal mailan, baina hezkuntza eta familia arloarekin lotuta sentitzen dugu.

Haurren Hirien Saretik ez dakigu krisi honek aukerak ekarriko dituen ala ez. Baina ikusi dugu azken hilabeteetan zehar sendotu egin direla elkarrekin agertoki berriak sortzea eta garatzea ahalbidetzen digun komunitatea eraikitzeke oinarria izatea nahi dugun komunitateen arteko loturak. Eta hurrekin eta nerabeekin errealitate horren partaide izan behar dutela uste dugu, helduen maila berean. Uste dugu COVID19 aldia gure harreman-ohiturak, gure parte-hartze dinamikak, eremu publikoaren erabilerak eta kudeaketak berrikusteko une egokia izan daitekeela. Komunitatean pentsatzeko unea.

Hurrekin eta nerabeekin egindako lanari dagokionez, helburua ez da gure burua entretenitzeko denbora aprobetxatzea, egoera noiz amaituko eta normaltasunera noiz itzuliko zain (normaltasunak berekin gauza berriak ekartzen baditu ere). Aktibatu egin nahi dugu, erabakiak hartu, probatu... Salbuespeneko denbora aprobetxatu nahi dugu irtenbide pentsaezinak imajinatzeke. Elkarrekin eta elkarlanean eraiki nahi ditugu "komunitate-garapeneko eremu berriak, eskubidean oinarritutakoak, harremanetarako, ikaskuntzakoak eta hurrekin eta nerabeekin berrikuntza egiteke".

Bestalde, COVID19 aldi honetan, guztiontzat, baina batez ere batzuentzat, kalte posible asko ari dira bistaratzen. Bazterretan dauden pertsonak, kasu honetan helduak ez direnak, izan ohi dira gure babesa jasotzen lehenengoak eta aintzat hartuak izaten azkenak. Igaro duten konfinamenduak muturrera eraman ditu beren bizitzetako ohiko baldintzak Ahalduntze-gabezia, kategorizazioa, baita bakartasuna, ikusezintasuna, isiltasuna... ere. Era berean, familiek osasuneko gutxieneko arreta eta zaintza eskain diezaieketen haurren kasuan ere, egoera txarra izan da. Mugimendu-askatasuna eta ikerketa beharrezkoak diren adin horietan, beste pertsonekin egotera ateratzea ezinbestekoa denean, edo aniztasuna eta autonomia direnean hezteko elementu nagusiak, etxean gelditu dira gurasoekin. Gurasoek, gainera, lana egin behar dutenean.

Helduak gainezka sentitu dira izan dituzten entretenitzeko "aukera" guztiekin edo animatzaile- eta irakasle-lanak eginez. Lanak beste baten esku uzteke egiturarik ez dute izan, eta elkar laguntzeko gaitasunik

ere ez. Zain ere geratu dira, gehienak lehen aldiz bakarrik egon dira hazkuntzaren haurrean. Zer esanik ez arrisku-egoeran daudenez.

COVID19 aldi honek bistan jarri ditu gure gabezia kolektiboak, gure harreman-estiloen arriskuak eta antolaketa-ohiturak. Era berean, agertoki berria jarri zaigu aurrean, ziurgabetasunari erremediorik gabe aurre egiteko aukera, berriz asmatzeko beharra, eta haurra zer den, zer behar duen eta zer eskain diezagukeen argitzeko ikuspegia.

Hori dela eta, udal bakoitzetik batera eta presaz martxan jar daitezkeen ekintzak zehazten ari gara lanean, baita sare gisa ere, pertsonak, eragileak eta beste administrazio batzuk gonbidatuz haurren eta nerabeen osasunarekin elkarlanean aritzera batu daitezzen, betiere, ikuspegi salutogenikotik eta eskubidea oinarri hartuta, babesa eta kontrola baino harago. "Probatzeko balio duten eta denboran iraun dezaketen" neurriak proposatu eta aktibatu nahi dira. Haurren eta nerabeen potentzian konfiantza izateaz gain, hemen eta orain gure parte izatea da helburua.

Horretarako, sareak 4 jarduketa arlo identifikatu ditu udal mailan: informazioa, partaidetza, eremu publikoa eta aliantzak helduekin. Gure proposamena erraza da: arlo horietan lan egitea Haurren Hirien Sarea sareko Udal Kontseiluetako haurrekin, eta ekintzak zehaztu ostean, datozen hilabeteetan horiek martxan jartzea sustatzea eta beste udalerriekin partekatzea.

Izan ere, errealitatean, hauek guztiak galdu ditugu: kalea, intimitatea, sareak partekatzeko/besteen esku uzteko aukera, ekintzaren/erabakiaren ahalmena eta hazkuntzari eusteko eraiki genituen gizarte-egiturak. Ezin gara besteekin egon, eta hori ezinbestekoa da galderak egiteko, lantzeko...elkarrekin antolatze gaitasuna

mugatuta dugu. Eta ez ditugu alde batera utzi nahi hilabete hauek etorkizunean, gure osasun emozionalean eragin ditzaketen kalteak.

Baina etxea irabazi dugu. Familian egoteko denbora, egoteko, elkar ezagutzeko, elkarrekin bizitzeko aukera. Gure etxeko lau paretak modu ekitatiboagoan eta banatuagoan kudeatzeko aukera. Gure etxeen txikitasunean gure udalerrietan eraiki nahi dugun hori entseatzeko aukera. Muga askorekin (kontziliazioa, kompetentziak eta jakintzak, aniztasunaren gabezia eta abar), eta batzuetan, bat-batean jakin behar izan dugu zein diren gure inguruan dauden haurrak.

Eta horrek esan nahi du orain gehiagok dugula konfiantza haurrek eta nerabeek erantzunak ematen laguntzeko duten gaitasunean: gerorako ideiak, kalea erabiltzeko, antolatze... Ikusi dugu gai direla eta kalea berreskuratzeko estrategiak egiten lagun diezaguketela. Gure auzoak, herriak eta hiriak gure komunitateen garapenari eta hazkundeari lagunduko dioten eremu bihurtzen lagun diezagukete. Izan ere, batzuetan ahaztu egiten dugun arren, hiriak ez dira kaleak eta eraikinak bakarrik. Ametsak, hizkuntzak eta iruditeria partekatuak dira. Truke-eremuak, ez salgaienak bakarrik, baita hitzenak, nahienak eta oroitzapenenak (Italo Calvino) ere.

## HAURREN HIRIEN SAREA.



**Zintzilik dauden eta presazkoak diren lau erronka.**

**Informazioa.**

**Parte-hartzea eta Entzutea.**

**Autonomia, Jolasa eta Espazio Komuna.**

**Helduak.**

**Hiru atal lerro/erronka bakoitzean:**

**Idea-  
zerrenda  
edo ekintza  
posibleak.**

**Haurrekin  
egiteko  
ekintza-ideia  
posibleak.**

**Baldintzak  
zaindu eta  
bermatzeko  
oharrak.**

# 1. INFORMAZIOA



**ideiak**

## **Haurrak eta nerabeak INFORMATZEA.**

1. Haiek aipatzea eta haiengana herritar gisa zuzentzea; gure komunitateetako haurrak eta nerabeak dira.
2. Informatzeko helburuarekin hitz egitea (edonori bezala): dakigunari eta erabaki denari buruz. Hizkera irisgarrian, zehaztasunez eta errespetuz.
3. Galderei eta zalantzei tokia ematea/sortzea.
4. Mezuak komunitate esparruan igortzea lehenestea eta egin dezaketen horretan oinarritzea.

## **BITARTEKOAK aprobetxatu eta berriz asmatzea.**

1. Komunikazio-pieza udaleko komunikazio-bitartekoetan.
2. "Prensa-oharra" edota udal arduradunaren "bideoa".
3. Pandemiari dagokionez haurren ezagutza elikatzeko Covidak kaltetutako talde desberdinen arteko komunikazio-kanalak sortzea.
4. Haurrak/gazteak/helduak diren beste pertsoneri haiekin komunikatzeko erreferenteak eskatzea.

## **Komunitateko helduak INFORMATZEA.**

1. Autonomiaren garrantziari buruz (EGITEN UTZ dezaten).
2. Jolasaren garrantziari buruz, gozamenaz harago.
3. Haurren eskubideei buruz.
4. Harreman-ohitura adultokratikoei buruz.
5. Zaintzaren balioari eta bizitza ez produktiboari buruz.





# haurrekin

## HAURREKIN ETA NERABEEKIN LAN EGITEA

UMEEN KONTSEILUAREKIN -edo komunitateko haurrei zabaldua eta haientzat-; hauek egin ahalko lirateke:

1. Galderak: Zer jakin nahiko lukete? Nola komunikatu beharko genuke haiekin?
2. Bozeramailletza: Kontseiluak eman al diezaieke informazioa udalerriko gainerako umeei?
3. UK-ko pertsonak tokiko bitartekorako idatz ditzakete albisteak (aldizkaria, irratia...)
4. Kontseiluak gobernu taldearekin izandako elkarreginaren alde egitea, informatzeko, lasaitzeko eta baita "errietak" jasotzeko ere.
5. Haurrentzako ahalduntze-neurriak.
6. Informazio-kanpainen diseinua.
7. "Egin daitekeen horretatik" abiatuta "ideien" elkarlan-zerrenda egitea.



## gogoan izan:

### AKATSETATIK IKASI ETA ARRISKUAK SAIHESTU.

- . Norabide bikoitzeko informazio-kanalak zabaltzeak komunikazio argiari laguntzen dio eta ulermenerako edo sarbiderako zailtasun handiena duten pertsonak biltzen ditu.
- . Haurrengana ikasle deituz zuzentzeak asko esan nahi du haiekin dugun harremanari buruz. Ikastetxean duten bizitzaz harago, beren bizitza komunitarioa eta familia-bizitza aitortu behar dugu.
- . Haurrekin herritarren politika egin behar da, alderdikeriaren eta infantilizatzearen arriskutik eta/edo ohituratik defendatzen dituzten estrategiak bilatuz.
- . Garapen komunitario, aukera eta gaitasun esparruan informatzea, eta beldurraren, konfiantza-gabeziaren eta kontrolaren mezuak gutxitzea.
- . Gauzak gaizki egiten ditugunean barkamena eskatzea besteekiko errespetu-erakustaldia da, akatsa ikaskuntzarako elementu garrantzitsu gisa balioesteko konfiantza- eta laguntza-ariketa.
- . Informazio-kanal bizkorrak ezartzea udalekin, ikastetxeekin, udaleko eragileekin, elkarteekin...
- . Argi eta modu antolatuan kontatutako informazioa herritar guztiengana iristen da, koordinazio- eta koherentzia-irudipen handiagoa ematen du eta ziurgabetasuna gutxitzen du.
- . Egin behar EZ dugun horretan -edo osatu gabe- oinarritutako mezuak moteltasun-, zalantza- eta babesgabetasun-sentimenduekin batera etortzen dira.

## HAURRAK INFORMATZEA

1. HERRITAR gisa
2. Infantilizaziorik gabe.
3. IZENDATU, ez dira "ikasleak".
4. ZINTZOA izanda.
5. EDONORK ulertzeko moduan.
6. Esan ZER EGIN DEZAKETEN.
7. Eskatu LAGUNTZA

## BAI ZENBAT, BAI ZER

1. Emaiezu LEKUA
2. Erabili TOKIKO BALIABIDEAK
3. BESTEENTZAT egiten duzunean, pentsatu HAIENGAN.
4. Pentsaurrekoak, bideoak, kontsultak...
5. Sustatu bizipenen eta informazioaren TRUKAKETA.
6. Eskatu erreferenteen LAGUNTZA

## PERTSONA HELDUAK INFORMATZEA:

1. Hurrek denbora eta arreta behar dute, ARDURA.
2. UTZIEZU erabakitzen eta egiten.
3. JOLASTEA beharra da.
4. ESKUBIDEAK DITUZTE
5. Berrikusi zuen HARREMANA
6. LEHENTASUNA izan beharko da.
7. LAGUNTZA bila dezakezu.

## KONTSEILUAREKIN EDO HAURREKIN LAN EGITEA:

1. GALDETU garrantzitsua dena.
2. Gonbidatu BOZERAMAILETZARA
3. Prestatu HAI EKIN informazioa.
4. Sustatu TOPAKETA udalarekin.
5. AHAL BALDIN BADUZU, diseinatu kanpaina.

## 2. PARTE-HARTZEA ETA ENTZUTEA

The logo for 'ideiak' features the word in a bold, black, sans-serif font. Above the text is a dark grey speech bubble containing three green circles of varying sizes, arranged in a slight arc.

### Aprobetxatu ZINTZILIK dagoena.

1. Haurrak kontuan izan, galdetu, kontrastatu, eraiki...
  - . Aldian behingo kontsultak baino harago, egin galdera garrantzitsuak, handinahiak... Benetan kezkatzen gaituztenak: Nola antola genezake uda? Orain, berriz pentsatzen ari garen honetan, nolako eskola egingo zenuke? Eta datorren urteko jaiak?
2. Sortu parte-hartzea ahalbidetuko duten onlineko tresna zehatzak.
3. Bilatu irtenbideak “txirotasun digitaleko ahotsik gabekoei”.
  - . “Parte hartzeko” gailuak dohaintzan/maileguan ematea
  - . Baliabideen/gailuen erabilera partekatua sustatzea “eskaileran”.
4. Heldu hizkuntza-arrailari: haur askorentzat euskaraz bizitzeko eremu bakarra ikastetxea da eta eta horri irtenbidea bilatu behar zaio.

### Hasi TOPAKETATIK eta ENTZUTETIK.

1. Kaleko proiektuak: horma-irudiak, eskultura iragankorrak... (3. puntuan+)
2. Portaletan/auzoetan haurren antolaketa sustatu (etxetik-herrira parte-hartzea)
3. Haurren ahotsa entzuteko kanal berriak zabaltzea: haurren tokiko irratia, auzoetako batzordeak...
4. Banaka dei egin al diezaiekegu? Zer moduz dauden galdetu eta entzun? - adinekoekin egin da dagoeneko - posible da.

### EZIN DUGU online soilik jarraitu.

1. Dagoeneko duguna egokitzea, gehiagora eta hobeto iristeko. Ohiko komunikabideak (irratia, tokiko aldizkariak...), herritarren parte-hartze prozesuak (txertatu)...
2. Kartak, jolasteko materialak (puzzleak, liburutegiko liburuak, joskintzakoak, autoak...) bidal diezazkiekegu? Edo erronkaren bat posta bidez?
3. Kalea berreskuratu!



## haurrekin

### HAURREKIN ETA NERABEEKIN LAN EGIN

UMEEN KONTSEILUAREKIN -edo komunitateko haurrei zabaldua eta haientzat-; hauek egin AHALKO GENITUZKE:

1. Umeen Kontseiluak ez daitezela gelditu Covid 10 aldiak eskaintzen dizkigun aukeren baitan (online, talde txikientzako topaketak, eremu zabaletan...)
2. Haurrekin parte hartzeko prozesu handinahiak abiarazi.
  - . Diseinua eremu komunekin
  - . Datozen jaien diseinua eta antolaketa
  - . Udalekuen diseinua eta antolaketa
  - ....
3. UK Kontseiluaren bidez ideiak eta gogoetak bildu eta zabaltzea: udal aldizkarietan, gaueko emanaldi bidez kalean, liburuxken bidez...
4. Esan beren ikaskuntzak partekatzeko. Beren ustez, krisi honek aldatu beharreko zer utzi digu? Eta gertatu zaiguneko zer legoke ondo mantentzea?
5. UK-ko haurrek beste haurrei dei egin diezaiekete?
6. Haurrek herriko gainerako haurrekin batera egin ahal izateko moduko jolasak eta erronkak diseina ditzakete.
7. Herrietako Zaintza Sareetan parte har lezakete.



## gogoan izan:

### AKATSETATIK IKASI ETA ARRISKUAK SAIHESTU.

- . Eman garrantzia haurren ahotsari eta ideiei. Haurrak eta nerabeak guztizko eskubideak dituzten herritarrak dira. Komunitateko gauzen parte izateko gai dira.
- . Hasteko, beti galdetu. Uzteaz, gutxiesteaz edo infantilizazioaz gain, paternalismoa izan ohi da ohiko akatsetako bat, baita "hurrekin kezkatuta dauden" haiengan ere.
- . Bistakoa da behar ditugula. "Helduek arauan" sortzen ditugun alternatibak txiroak dira, homogeneousak. Beste batzuk txertatzeak aniztasun, aberastasun eta arrakasta handiagoa bermatuko luke.
- . "Desberdinen artean elkarbizitzen eta kudeatzen" ikasi behar dugu ziurgabetasun-egoeren aurrean erantzuteko aukerak aberasteko eta handitzeko. Helduek, "boterera ohituta" daudenek dute gehien ikasteko.
- . Prest egon behar dute berriz ez gelditzeko edo parte-hartze prozesuak geroratzeko, betiere, beldurraren aurrean sortzen duten osasuna balioetsiz eta lehenetsiz.
- . Esperientzia aprobetxatzea txirotasuna eta arraila digitala gutxitzeko, alde horretatik berdintasun-baldintzak eskaintzen saiatzeko.
- . Gogoan izan behar dira isolamendutik edo onlinekotik etorritako ikusten ez diren edo berehalakoak ez diren kalteak. Saturazioak off line estrategiekin konpentsatzeko beharra ekarri ohi du. Eremu publiko-komunak leku handia eskaintzen du "topaketa fisikoko" alternatibak bilatzeko.
- . Hurrekin eta nerabeekin parte hartzea da partaidetza. Prozesuak ez infantilizatzen eta pedagogizatzen ikasi behar dugu. Haurrentzat eta nerabeentzat espezifikoak den zerbait elkarrekin egiten ikasten dugun bitartean, egokitu egin beharko da, baina "serioa" izaten jarraitu beharko du.

## HOBETZEKO APROBETXATZEA

1. ELKARREKIN eraiki.
2. Infantilizatu gabeko proiektu handinahiak proposatu.
3. Online tresna zehatzak sortu.
4. Gailuen dohaintza edo maileguan ematea sustatu.
5. Topatzeko, harremanetarako eta euskara ikasteko lekuak sustatu

## TOPAKETA ETA ENTZUTEA

1. KALEko proiektuak.
2. Haurren autokudeaketa.
3. Etxetik/ataritik/kaletik/auzotik... herrira.
4. Haurren edo hurrekin egindako irratia edo aldizkaria.
5. Auzoen batzordeak.
6. Udaletik etxera deiak.

## ONLINEKOTIK HARAGO

1. Prozesu aktiboak ez gelditu eta beste herritar baten moduan txertatu.
2. Posta-aukerak berreskuratu
3. Atez atekoa berreskuratu
4. Administrazioa & tokiko sareak aliantzak.

## KONTSEILUAREKIN EDO HAURREKIN LAN EGITEA:

1. Ez berriro eten. Maiztasuna zabaldu!
2. Parte-hartze prozesuak hasteko aprobetxatu.
3. Pertsona gehiago batzeko aukerak.
4. Bozeramailetza eta parte-hartze prozesuak kudeatzeko aliantza.
5. Prozesuen diseinua, parte hartzeko aliantzak

# 3. AUTONOMIA, JOLASA ETA ESPAZIO PUBLIKO KOMUNA



**ideiak**

## **Berdea ZAPALDU EGITEN DA.**

1. Espazio komuna jolas askerako eremu gisa berriz asmatzea.
2. Kendu debekatuta zapaltzea, jolastea... ipintzen duten kartelak
3. Salatu "debekatuta jolastea" ipintzen duten kartelak (esate baterako, hondartzan)
4. Tokiko elkarteei eman beren ekintzak ideia horretara "egokitzeko" aukera.
5. Herria jolastuz ezagutzeko jarduerak.

## **PUBLIKOA den hori KOMUN bihurtzeko aukera.**

1. Auzolanak sustatu (erabilera, askatasuna, erantzukizuna... batera doaz!)
2. Auzoko espazioak sustatu jarduerak antolatzeko garaian (plaza txikiak)
3. Saltokietako erakusleihoak erabili (esate baterako, margotzeko), klarion likido bat eta garrantzia kutsatu; horrekin nahikoa da.
4. Guztien jarduerak antolatu eta horietara dei egitea: landatu, margotu, istorioak kontatu...
5. Parte-hartzeko plazak. Plaza, eraikuntza kolektiborako eta komunitariorako entretenimenduaz harago.

## **ALTERNATIBAK proposatzeko eta diseinatzeko erantzukizuna.**

1. Elkar ez ukitzen jolastu. Elkar ez ukitzeko neurriak asmatu beharrean, hori behar ez duten jolasak pentsatu.
2. Materialak eduki. Kostu baxua, balio altua (klariona, kartoia, txabolak egiteko egurra...)
3. Eremu berdeak / lorategiak diseinatu eta gauzatu udal-zerbitzuarekin batera.
4. Ludoteka 3.0: jolaserako gailuak eta eremuak sortu atarietan, jolastokietan, kaleetan...





## hurrekin

### HAURREKIN ETA NERABEEKIN LAN EGITEA

UMEEN KONTSEILUAREKIN -edo komunitateko hurrei zabaldua eta haientzat- haiekin berriz diseinatu, pentsatu, lan egin... Ahal izango litzateke.

1. Eremu eta material egokiak edo espazio komunean jolasari traba egiten diotenak identifikatu.
2. Hurrekin eta nerabeekin diseinatu jolas "askea eta kalean egindakoa" balioesteko kanpaina, beste nerabe batzuekin aliantzak sortuz.
3. Haur eta nerabeekin (autokudeaketa sustatu) Auzolanak sustatu.
4. Aliantzak administrazioarekin eta merkatariekin eremu komunen eta komertzioen erabilera alternatiboak asmatzeko.
5. Esan jolasteko plazak eta parte-hartzea gobernatzeko, baita 3.0 ludotekak ere.
6. Asmatu neurriak, ekintzak eta jolasak kalean, baita helburua elkar ez ukitzea baldin bada ere.



## gogoan izan:

### AKATSETATIK IKASI ETA ARRISKUAK SAIHESTU.

HURRENGOAN EZ DITUGU HAURRAK ETXEAN KONFINATUKO.

1. Osasuna lehenetsi behar dugu Covid bai - Covid ez gaiaz harago. Pertsonak -haurrek besteek baino gehiago- kaleen beste pertsonekin topatzeko beharra dugu.
2. Espazioa behar baldin badugu, hori irabazi egin behar da.
3. Segurtasunetik konfiantzara igaro. Kontrol gutxiago eta egiten gehiago utzi. Haurrak guztien ongiarekin elkarlana egiteko prest eta konprometituta daude. Nola jolastu erabaki dezakete jokoaren arauak unibertsalak badira eta argi baldin badaude.
4. Ura berreskuratu behar da (udan eta Euskadin, elementu naturala baita).

ZAPALTZEN DEN BELARRA HAZI EGINGO DA.

5. Leku gehiago behar da, berdea dena berreskuratu... Gure herriak "haurren neurrira" eraldatzeko aukera aprobetxatu, "guztioz bizitzeko modukoa" izan dadin.
6. Erabili kalea, baita helduen topaketarako ere.

KALE HEZITZAILEA. IKASKUNTZAREN KOMUNITATEA

7. Hezkuntza ez-formaleko eragileekin elkarlana egin. Kalea eta eremu komunak hartu, esate baterako.
8. Garrantzitsua da osasuna kontuan izanda gizarte-eragileekin eta herritarrekin harremana hobetzea; une honetan bistakoa da elkar behar dugula.
9. "Irakaskuntzan" oinarritutako harremanak intermendekotasun-harreman, berdinen arteko ikaskuntza eta elkarlan bihurtu behar ditugu. Kalea da horretarako gure lekurik onena.
10. Aldagarriak izan daitezkeen eta osasunerako arriskuak saihestu ditzaketen eremu berriak asmatu. Esate baterako, lurrean edo paretetan margotzeko erabilerak malgotu. Lehentasunak argitu eta malguak izan.
11. Etxea, ataria, kalea, auzoa, herria. Txikia den horren politika berreskuratu norberetik eta komunitariorantz hazteko.

## **BERDEA ZAPALDU EGITEN DA**

1. Debeku-plakak KENDU
2. Kalea, batez ere, JOLASTEKO.
3. Gizarte-eragileak gonbidatu/horiek babestu beren jardueretarako kalea erabil dezaten.
4. Herria harago ezagutu...
5. Lehenik, eremu irekiak eta berdeak, eta ondoren, lantegiak eta terrazak.

## **PUBLIKOA DENA KOMUNA DA**

1. Auzolanak sustatu.
2. Espazioei/auzoei arreta eskaini.
3. Araudiak malgotu.
4. Guztien/guztientzako jarduerak.
5. Parte-hartzeko plazak sortu.
6. Eta pribatua dena?

## **ALTERNATIBAK SORTU**

1. Pribatua dena zabaltzen saiatu (etxeak, atariak, saltokiak hutsik dauden etxeak...)
2. Kanean jolasteko materialak eduki
3. Inbertitu eta oparitu (bizikletak, esate baterako).
4. Ludoteka 3.0.
5. Gaua hartu

## **KONTSEILUAREKIN EDO HAURREKIN LAN EGITEA.**

1. Jolasa/osasuna aktiboen mapa.
2. Jokorako/jokoaren kanpaina-diseinua
3. AuzolanTxikiak guztien artean.
4. Plazen/Arkupeen/Erabilerarik gabeko eremuen diseinua eta garapena.
5. Egoera bakoitzera egokitutako neurriak asmatzea

# 4. HELDUAK



## ideiak

### HELDUEI LAGUNDU

1. Udaletatik jasotako informazioa familien aniztasunera egokituta (irakurketa erraza/informazio argia)
2. Helduei laguntzea (online): haurra zer den, zer behar duen, nola lan egin online...
3. Estrategiak biltzea: ideien bankua, erronkak, jolasak... kontziliazioan eskaria/frustrazioa arintzeko.
4. Familia-gobernantzan edo etxean laguntzeko edo hori sustatzeko eskuliburua/gida.

### LAGUNTZA SAREAK INDARTU

1. Taldeen sorrerari laguntzea laguntzeko, partekatzeko, eusteko eta barrena husteko.
2. Hazkuntza Taldeen moduko topaketak kalean (egunean gai bat / laguntzaile bat).
3. Herritarren/instituzioen laguntza-sareei beste eginkizun bat gehitzea: haurrei laguntzea.

### KOMUNITATEAN HAZI ETA HEZI

1. Udalaren eta herriko ikastetxeen arteko aliantzak ekimenetarako/laguntzeko.
2. Konfinamenduan sortu diren auzoak eta harremanak sendotu. Auzoetako aniztasunari erantzun.
3. Komunitateetan eta herri txikietan, edo atarietan, zaintza- eta laguntza-sareak sortzea sustatu.
4. Zurrumurrueen kontrako estrategia.

### ALIANTZAK INPAKTUAREKIN

1. Udaltzaingoak prozesu horiek lagundu/babestu ditzake, herritar-gaitasuna berreskuratu.
2. Aliantzak erakundeekin (BBKFamily, Carasso Fundazioa, Caixa Fundazioa, Zientzia Museoa...) helduak hezi edo horiei laguntzeko.



## haurrekin

### HAURREKIN ETA NERABEEKIN LAN EGITEA

UMEEN KONTSEILUAREKIN -edo komunitateko haurrei zabaldua eta haientzat- haiekin berriz diseinatu, pentsatu, lan egin... Ahal izango litzateke.

1. Gurasoekin "elkarbizitzeko" eskuliburu bat sortzea -gobernantza etxean-. UK-ko haurrek beren familiekin (edo guraso-elkarteak) batera lan egin lezakete.
2. Gurasoentzat/gurasoekin laguntza-kanpainak egitea.
3. Lana kontziliatzeko ideien/erronken/jolasen edo "errutinen" gida egitea.



## gogoan izan:

### AKATSETATIK IKASI ETA ARRISKUAK SAIHESTU.

1. Haurren konfinamenduak bakartasunean oinarritutako hazkuntza jasanezina eta kaltegarria dakar berekin.
2. Garrantzitsua da aukerak eta eskakizunak murrizten laguntzea, haurrek ahal dezaketenaren eta behar dutenaren eta elkarbizitzan laguntzeko moduaren informazio erreala eskainiz.
3. Sentitzen dugu, haurrek laguntza behar dute. Izan ere, autonomia mailaz maila konkistatzen da eta eskolatze-urteen esperientziak ez du laguntzen.
4. Erabakia umeak aparkatzea eta entretenitzea baldin bada, izan gaitzeen argiak, zintzoak eta kontsekuenteak.
5. Beharrezkoa da harremanak hezkuntza formalarekin hobetu eta indartzea, baita familien, erakundeen eta eskolen hezkuntza-askatasuna errespetatzea ere.
6. Ikastetxeekin elkarlanean, ikaskuntzaren garrantzia sustatu irakaskuntzaz harago.
7. Komunitatearen garrantzia kontuan hartu. Tribua berreskuratu, auzoa berriz ezagutu... Komunitateari hezkuntza erantzukizuna itzuli.
8. Sare gisa, aldaketa honetan lagundu gaitzaketen pertsonen eta eragileen atxikipenak sustatu.

# Heldu aliatuak

# Laburpena

## LAGUNTZA EMATEA

1. Aukerak murriztu.
2. Informazio egokitua eta argia.
3. Online prestakuntza
4. Ideien bankua
5. Etxearen gobernantza.

## LAGUNTZA SAREAK

1. Euste-sareak sustatu (ataria).
2. Klean Topaketak antolatu.
3. Erosketak ekartzen dizkiguteneke hurrei lagundu behar die.

## IKASI, HEZI ETA HAZI.

1. Zaintza-/laguntza-sareak sustatu.
2. Sortu diren harremanak zaindu.
3. Aliantzak ikastetxeekin.
4. Aliantzak eragileekin.
5. Zurrumurruen kontrako estrategia

## ALIANTZAK

1. Udaltzaingoa.
2. Fundazioak edo komunitate-indarra duten eragileak.
3. Nerabeak-gazteak
4. Aitona-amonek istorio ezin hobeak konta ditzakete.

## HAURREN KONTSEILUEKIN

1. Etxean Gobernatzeko Gida Sortzea.
2. Haurren/helduen jolaserako arauak eta akordio komunitarioak kontrastatzea.
3. Sareak sortzea / herritarrengan parte-hartzea.
4. Etxeko lanetan laguntzeko kanpaina
5. Ideia/erronka/jolasen gida edo kontziliatzeko "errutinak".

# Baliabide gehiago



## SAREAREKIN BAT EGIN NAHI BADUZU

1. Udalerriari egindako proposamena eta gonbidapena.
2. HHS Sarearen konpromiso-dekalogoia - Norantz jo.

## COVID ALDIAREKIN KEZKATUTA BALDIN BAZAUDE

1. Sareak 2020ko udaberriko erabakien eta bizipenen gainean egindako gogoeta-laburpena.

## SAREAREN LANA HOBETO EZAGUTU NAHI BALDIN BADUZU

1. Laneko koadernotxoak.
2. Harremana



**Urte hauetan guztietan Haurren Hirien Sarea ekimeneko gogoetetan eta elkarrizketetan parte hartu duten Euskadiko udalei eskerrak eman nahi dizkiegu:**

Zornotzako Udala, Arrasateko Udala, Bakioko Udala, Balmasedako Udala, Barakaldoko Udala, Bilboko Udala, Derioko Udala, Durangoko Udala, Erandioko Udala, Ermuko Udala, Irungo Udala, Larrabetzuko Udala, Leioako Udala, Santurtziko Udala, Sopuertako Udala, Soraluzeko Udala, Tolosako Udala.

**HAURREN HIRIEN SAREA  
HAURREKIN**

